

## Azeri ase ezina

Orain kontatuko dizudan hau, aspaldi-aspaldi gertatu zen, animaliek bertsoan hitz egiten zuten urrutiko garaietan. Orduan ere, udazkena bukatzearekin batera heltzen zen negua, eta urte hartakoa gerturatzen zebilen. Hori zela eta, Azerik udazkeneko azken egun haiek ondo erabili nahi zituen sabela bete-bete egiteko. Izan ere, batek jakin elurra heltzerakoan otordu oparorik egiteko moduan egongo ote zen...

Egun hartan, goizean goiz abiatu zen Azeri ehizara. Behe-lainoa nagusi bazen ere, etxetik irten eta lasterrera luzatu zion begirada sagu txiki eta jostari bati. Ihes egiten uzteko batere asmorik gabe, Azerik korrika bizian igaro zituen iratzeak, sasiak, zuhaixkak... eta sagutxoak ohartu baino lehen heldu zion buztanetik.

–Oh, ene Sagu maite!  
Jan egin behar zaitut, eta tripa bete.  
Negua bertan da,  
eta hobe harrapatzen banau behar beste janda.  
Heldu da zeure txanda!

–Et, et, et... Nirekin tripa bete?  
Aska nazazu derrepente,  
eta jar itzazu belarriak tente-tente!

Sagutxoak basoa amaitzen zen lekutik harago begira jarri zuen Azeri.

–Tximiniatik kea darion baserrian,  
katu bat ibiltzen da harropuzkerian.  
Esango nuke ni baino lau aldiz handiagoa badela,  
harekin baietz bete sabela!

Beharbada, sagutxo hark arrazoi izango zuen. Behin ehizan hasita, hobe zen indarrak probetxuko zerbaitetan xahutzea. Beraz, birritan pentsatu gabe, Azerik zuzenean jo zuen tximiniatik kea zerion baserrira.

Eguerdiko eguzkipean gustura zegoen katu beltz pertxenta, eta mugimendu leun batekin mugitu zuen buru tentea, Azeri gerturatzen zebilkiola konturatu zenean.

–Oh, Katu kuttun!  
Jan egin behar zaitut, tripa hasi orduko burrun-burrun.  
Negua bertan da,  
eta hobe harrapatzen banau behar beste janda.  
Heldu da zeure txanda!

–Miau eta miau,  
nirekin aseko al da ba azeri hau?  
Laguntzen badidazu oilategira,  
zeure ametsik gozoenak egia bihurtuko dira...

Katuaren hitzekin gogotsu geratu zen Azeri; zer ote zen oilotoki hartan zegoena?

–Ni baino handiagoa da bertako oilar gorria,  
eta han aseko duzu tripa-zorria!

Eta katua zuzen bazezilen? Azerik pentsatu zuen papar haragitsu eta lumaje ederreko oilarra gozoagoa izango zela seguruenik buztan eta bibote besterik ez zen katua baino, eta oilategiraino eramateko eskatu zion.

Baserriaren atzealdeko itxitura batean, oilo, oilasko eta txita mordoa zebiltzan kakara eginez, eta, hainbeste lumaren artean, oilarra ezin aurkitu zebilen Azeri.

–Ez al duzu ikusten bila zebiltzan altxorra?

Atzealde hartan bada ba lurrera eroritako enborra? –galdetu zion katua.

–Arramarik altuenean dago aipatu dizudan oilarra, zoaz kontuz, tarra-tarra.

Hura zen hura oilar puska! Oso-osorik janez gero, negu osoa beste mokadutxorik jan gabe igarotzeko moduan egongo zela pentsatu zuen Azerik, eta edukazio handiz gerturatu zitzaion.

–Purra, purra, purra...

Jan egin behar zaitut, ez nadin gera azal eta hezurra.

Negua bertan da,

eta hobe harrapatzen banau behar beste janda.

Heldu da zeure txanda!

–Kukurruuuuu,

ez nazazu horrela izutu!

Erruki, mesedez, erruki...

zaldi eder bat bizi da hemendik ez oso urruti...

Izango al zara osorik jateko gai?

Hain abere handirik ez duzu aurkituko nonahi!

Oilarrak zalantzati utzi zuen Azeri. Duda sartu zitzaion ea zaldikote bat mauka-mauka irensteko kapaza izango ote zen. Eskaintza ugari jasotzen zebilen, zein baino zein hobea, baina, horrela segituz gero, bazkaria izan behar zuena laster bihurtuko zen afari! Beraz, ez bat eta ez bi, horrela galdetu zion oilarrari:

–Non diozu dagoela zaldia?

Mugi nadin, ezkutatu orduko eguzkiaren argia!

–Bidexka horretatik segi,

baina ez aldendu gehiegi,

eta laster joko duzu begiz belardia.

Hantxe aurkituko duzu zaldia.

Haizeak baino bizkorrago jo zuen Azerik bidexkatik belardira. Zaldia ikustearekin batera txundituta gelditu zen. Hura zen ilajearen ederra, kolorearen dotorea... Inoiz ikusiriko zaldirik gihartsuena iruditu zitzaion. Baina Azeri ez zen ikaratu, ezta pentsatu ere. Bera zen basoko eta inguruetako animaliarik ausartena, errespetatuena, jatunena... eta hasitako lana amaitzea besterik ez zuen buruan.

Astiro-astiro gerturatu zitzaion galanki begira zeukan zaldiari, eta honela esan zion:

–Arratsalde on!

Dagoenean bonbon eta ez dagoenean hor konpon,

baina gaurkoan badut nahikoa zorion!  
Edonola ere, adiskide,  
eta esapideak esapide,  
zor dizkizut, beharbada, pare bat argibide...  
Ez didazu sinetsiko,  
baina zu jatera etorri naiz, txikito...  
Ederra zara, sinez,  
eta jan ere jango zaitut bihotzeko minez,  
baina negua bertan da,  
eta hobe harrapatzen banau behar beste janda.  
Heldu da zeure txanda!

–liiiiiiii...

Bai zorigaiztokoa ni...  
Azeri batek jan behar nau!  
Alferrik hasiko naiz orain oihu eta alarau...  
Negua gogorra da berez,  
eta tripa bete gabe elurtea pasatuko zenuke nekez,  
baina, ni jan aurretik, azken kontutxo bat eskatu nahiko nizuke mesedez...

–Esan, esan... Nire bi belarriak osorik dira zuretzat,  
eta laguntzerik badut, saiatuko naiz behintzat.

–Nola jaten nauzun ez nuke ikusi gura,  
horrek eragingo bailidake animaleko tristura...  
Beraz, emadazu lehen mokadua ipurmasailean, ez bazaizu ardura...

–Tira ba,  
hori baino ez bada,  
pozik beteko dut zure nahia...  
Has dadila jaia!

Haginak zorrotz eta ahoa zabalik, Azeri korrika bizian joan zen zaldiarengana lehenbiziko hozkada emateko grinatsu. Abiada hartu, eta jauzi ikaragarria egin zuen zaldiaren ipurmasailera, baina hura izan zen hura zaldiaren erantzuna! Aurrealdeko hanka bien gainean jarri eta atzekoekin ikaragarritzko ostikada eman zion Azeri gaixoari muturrean. Hortz bat edo beste ere airean irten zitzaion!

–Zatoz hona, lagun,  
eta negua elkarrekin pasa dezagun!  
Nik neuk jarriko zaitut bero-bero,  
ala joan al zaizu gosea honezkero?

Zaldia lauhazkan zebilen Azeri harrapatu beharrean, eta Azeri, berriz, izu-izu eginda basora bidean jarri zen, etxera heldu artean, atzealdera behin ere burua biratu gabe. Damu zitzaion behar zen unean oilarra jan ez izana, edo katuarekin konformatu eza, edo... zein ondo geldituko

zen basoan ikusitako sagutxoak aukera izan zuenean jan izan balu! Izan ere, gehiegi nahi duenak guztia galtzen du!